



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, epe luzeko aurrezki planei buruzko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, urriaren 5era arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarria, epe luzeko aurrezki planak arautzen dituena.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan epe luzeko aurrezki planei eman beharreko tratamenduari buruzko hainbat alderdi arautzea garatzea.
HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA	Beharrezkoa da arautzea aipatzen diren alderdi horiek epe luzeko aurrezki planen zerga tratamendua garatzen bukatzeko zergan.
XEDEAK	Alderdi jakin batzuk arautzea, batez ere epe luzeko aurrezki planen atxikipenei, konturako ordainketei eta eskubide ekonomikoak mugitzeari buruzkoak.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Irizten zaio aukerarik egokiena dela.